



A K T A

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** telematikoki egindako ohiko bilkurarena,

2021eko irailaren 8koa

Organo honetako kideen bilkura telematikoa egin da bideokonferentziaren bidez **13:17ak** direnean, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak telematikoki elkartu dira **ohiko bilkura** egiteko **lehenengo deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarreko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua eta Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da aldi baterako idazkari lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak bideokonferentzia saiora konektatu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA jn. (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)
Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)

Ez da bertaratu eta ezin etorria justifikatu du:
Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Escurza jauna bileran sartu da 13:22ak direnean, hain zuzen ere, eguneko aztergaien zerrendako bigarren puntua jorratzen ari denean.

Aiara Batuz batzordeko talde politikoko bozeramale Iratxe PARRO URQUIANO andrea gonbidatu bezala bertaratu da. Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren. Halaber ez da bertaratu Sucesores de Elías Jadraque, S.A. enpresa, eguneko aztergaien zerrendako bigarren puntuan parte hartzeko gonbidatua izan dena.

Halaber, bileran gonbidatu bezala telematikoki honako hauek bertaratu dira: Esteban Umeretz Argaña abokatua eguneko aztergaien zerrendako bigarren eta bosgarren puntuan parte hartzeko, eta Kuadrillako teknikari gisa Arbaizagoitia andrea bere arloko puntuak azaltzeko.

Umeretz jauna 13:31n sartu da bileran bigarren puntua jorratzen ari denean eta bilera utzi du 14:15ean.



Bilkura modu telematikoan ezarri da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren Azken Xedapenetako Bigarrenean ezarritakoaren arabera. Horrek Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, zehazki 46. artikuluko 3. atalean, organo honen bilkurak telematikoki egitea ahalbidetzeko, aintzat hartuta COVID-19ak egun sortutako ezohiko osasun-egoera.

Kuadrillako presidente andreak, **13:17an**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, **lehenengo deialdian**, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Eskualdeei buruzko Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Presidente andreak hasteko agindua eman du, aztergaien zerrendari jarraituz.

1.- AURREKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA.

Egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da deialdiarekin batera hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2021eko uztailaren 7ko bilkuraren akta onestea.

2.- GARBIGUNEAN BASKULA MUNTATZEKO EPEAK LUZATZEKO ESKAERA. EPEAK EZ BETETZEAGATIK HARTU BEHARREKO NEURRIAK ONESTEA.

Batzarburuak jakinarazi du abuztuaren 6an, Aiarako Kuadrillako erregistroan 562 sarrera zenbakia zuela, Elias Jadraque enpresak egindako eskaera jaso zela eta bertan eskatzen zela luzatzea kontratatutako baskula entregatzeko epeak (deialdiaren II. ERANSKINA). Egun horretan erantzun zitzaizen kontratazio-organoa irailean bilduko zela eta eskaera aztertuko zela (gai-zerrendako III. ERANSKINA). Sinatutako kontratua IV. ERANSKINEAN sartu zen.

Ghiro jaunak eskaera jasotzen duenetik egin duena azaldu du, alde zuzenetik kontratazioaren laburpen txiki bat eginda.

LABURPENA

Lizitazioa 2021eko martxoaren amaieran argitaratu zen eta adjudikazio irizpideen artean honako hau zegoen:



5.- Entrega-epea 6 astera murriztea: 5 puntu.

Hasierako entrega-epea 8 astekoa zen

Gutun-azalak ireki eta puntuak eman ondoren:

	Eskaintza ekonomikoa	Txartel kopurua handitzea	Prestakuntza	Bermea Zelulak+elementuak	Entrega-epea	Azken puntuazioa
BÁSCULAS RIOJA, S.L.	27.225,00 € BEZ barne	200 ale	5 ordu	4 +2 urte	8 aste	90 puntu
	60 puntu	15 puntu	10 puntu	5 puntu	0 puntu	
ELIAS JADRAQUE, S. A	28.132,50 € BEZ barne	200 ale	4 ordu	4+3	6 aste	93,06 puntu
	58,06 puntu	15 puntu	10 puntu	5 puntu	5 puntu	

Adjudikaziodunak 5 puntu lortu zituen epeak murrizteagatik, hala izan ez balitz, beste lizitatzailerak izango zen adjudikazioduna.

Kontratua idatzi eta bi aldeek sinatu zuten 2021eko ekainaren 18an, sinatutako kopia Elías Jadraqueri bidali zitzaion egun horretan bertan posta elektronikoz eta Egoitza Elektronikoren bidez (ekainaren 22an baieztatu zuen onarpena).

Baskula muntatuta eta funtzionamenduan entregatzeko sei asteko epea uztailearen 30ean amaitzen da.

Arbaizagoitia andreak esan du harremana telefono eta posta elektronikoko bidezkoa izan dela agiriak eta haiek eskatutako neurketak igortzeko, abuztuaren laura arte ez zuen enpresaren berririk izan.

Abuztuaren 5ean telefonoz galdetu zuten entrega atzeratzeko arazorik izango ote zen, epeetan ez baitzituzten sartu abuztuko oporrak. Ghiro jaunak emandako erantzuna izan zen kontratuaren arabera epea beteta zegoela eta zerbait nahi bazuten idatziz jakinarazteko.

Abuztuaren seian jaso da entregatzeko epea luzatzeko eskabidea.

Baldintzak eta kontratua berriro aztertu eta puntu hauek aurkitu ziren:

AKAn JASOTAKOA

47. klausula. Lanak akatsekin eta atzeratuta egitea.

Kontratistak kontratua egikaritzeko finkatutako azken epearen barruan bete beha du kontratua; elkarren jarraian jarritako epe partzialak ere bete egin behar ditu..



Hornidurak entregatzean atzerapena egonez gero, eta atzerapen hori kontratistari egotzekoak ez zaizkion arrazoiengatik sortu bada, baina hura prest azaltzen bada bere konpromisoak betetzeko kontratua egikaritzeko hasieran jarritako epea luzatuz gero, kontratazio-organoak epe bat emango dio, galdutako denboraren bestekoa izango dena gutxienez ere, kontratistak berak epe laburragoa eskatu ezik, SPKLko 195.2 artikuluan xedatuaren arabera, eta APKLEDko 100. artikulua arabera arautuko dira baldintzak eta tramiteak. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du adieraziz kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik izan ote den atzerapena.

Horniduren kontratuak ondoz ondoko prestazioak ez direnean, SPKLko 29.3 artikuluan xedatuarekin bat, enpresaburua prestazioa ematen berandutzen denean, kontratazio-organoak epea luzatu ahalko dio, baina zigorrak ere jarri ahalko dizkio; hain zuzen, SPKLko 192 artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa aplikatu daiteke.

Baldin eta kontratista azken epea edo zati bat betetzeko orduan berandutu bada berari egotz dakizkiokeen kausak direla eta, baldintza hauen I. eranskineko 8. apartaturen arabera jokatu da, eta Administrazioak, kasuaren inguruabarrei erreparatuta, aukeran izango du, edo kontratua suntsiaraztea, edo baldintza hauen I. eranskineko 30. apartatuan dauden zigorrak ezartzea.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean BEZik gabe, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratistak kontratua egikaritzen jarraitzea erabakitzeke. Azkeneko kasu honetan, kontratazio-organoak kontratua bukatzeko beharrezko epea emango du.

Era berean, Administrazioak prerrogatiba berdinak izango ditu epe partzialak betetzen berandututa, guztirako epea ere ezingo dela bete uste izateko nahiko arrazoi ikusten bada..

Kontratuan definitutako epe partzialak ez baditu betetzen kontratistak, Administrazioak kontratua suntsiarazi dezake edo baldintza honen I. eranskineko 30. apartatuan zehaztutako zehapenak ezar ditzake.

Ez-betetze partzialetan, betetze akastunetan eta berandutzeetan, zigorra aurreikusita ez badago edo aurreikusita egonik ere Administrazioari eragindako kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galerak ordaintzeko exijituko dio hark kontratistari.

29.- Zigorrak. (12, 41, 43, 46. klausulak)

a) Atzerapenagatik: SPKLko 193. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistari berari egotz dakizkiokeen arrazoi ondoriotz guztizko epea betetzean atzerapena izanez gero, **egunero zigor bat ezarriko zaio proportzio honetan: kontratuaren prezioko 1.000 euroko 0,60 euro, BEZ kanpoan dela.**

b) Zati bateko ez-betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik:

b.1) Gaizki betetzeagatik: SPKLko 192. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoi ondoriotz, kontratuan zehaztutako prestazioak zati batean betetzen ez baditu, kontratuaren prezioaren ehuneko 2ko zigorra jarriko zaio, BEZ kanpo, akatsa konpondu badaiteke; baina akatsa ezin bada konpondu, kontratuaren prezioaren ehuneko 5eko zigorra jarriko zaio, BEZ kanpo.

b.2) Bitarteko pertsonalak edo materialak atxikitzeke konpromisoa ez betetzeagatik: Ez dago, kontratuaren ezinbesteko betebeharra baita eta betetzen ez bada, kontratua suntsitu egingo da.

b.3) Gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik: Ez dago, kontratuko ezinbesteko betebeharra baita.

c) Esleitzeko irizpideak ez betetzeagatik: Ez dago, kontratuaren ezinbesteko betebeharrak baitira eta betetzen ez badira, kontratua suntsitu egingo da.

30.- Kontratua suntsitzeko zergatiak. (56. klausula)

SPKLko 211 artikuluan xedatuz gain, kontratua suntsitzeko zergatiak izango dira kontratuaren ezinbesteko betebeharrak izatera duten baldintzak ez betetzea.



KONTRATUAN JASOTA

HIRUGARRENA.- EPEAK ETA ZIGORRAK

Kokatutako eta egiaztatutako baskula entregatzeko epe-muga gehienez **kontratu hau sinatu eta sei astekoa izango da**. Esleipendunak aurkeztutako proposamenarekin bat etorriz.

Ezingo da inoiz kontratua luzatu, epea bete beharko da.

Esleipendunak kontratatutako zerbitzuan atzeratzen bada, Kuadrillak kontratua suntsiaraztea edo atzerapenagatik zigorrak ezartzea erabaki dezake, bata zein bestea, SPKLren 193. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Atzerapena edo ez-betetzea gertatzen bada, administrazio-klausula partikularren agiriaren I. ERANSKINAREN 29. artikuluan ezarritako zigorrak jarriko dira.

HAMARGARRENA.- KONTRATUA INTERPRETATU, ALDATU, ETEN ETA SUNTSIARAZTEA

Administrazio-klausula partikularren agirietan eta legeria aplikagarrian ezarritakoa jarraituko da.

ONDORIOA

ATZERAPENAGATIK ZIGORTZEA; eguneroko zigorra ezarriko da, kontratuaren prezioaren (BEZa kanpo) 1.000 euroko 0,60 euroko proportziokoa. SPKLAN jasota dagoen gutxienerako zigorra da, handitu daiteke, kontratu honetan eguneko 13,95 euro dira, eta hilabete bakoitzeko 418,5 euro.

Esleipen-prozesuan 5 puntu ematen ziren epea bi aste laburtzeagatik. 5 puntu horiek lortzeko lizitazioan jasotako formula aplikatuz gero, lizitazioaren prezioa murriztu beharko zen, 2.344 eurokoa izan beharko luke. Epea bi aste atzeratzeagatik ezarri beharko zigorra 209 eurokoa da.

KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Irailaren 15erako amaitzen badute, kontratua suntsiarazi gabe 700 euroko zigorra ezarriko zaie. Suntsiarazteak lizitazio berria hastea eta 4.000,00 euroko dirulaguntza galtzeko aukera dakar.

Abuztuaren seian IPARBILBAO enpresari sortutako egoerari buruzko txosten juridikoa idaztea eskatu zitzaion, txostenak irailaren 8ko 585 sarrera-zenbakia du.



Ghiro jaunak irailaren 7an enpresa kontratatzaileko bi ordezkariekin izandako elkarrizketa azaldu du, lehenengoa Daniel Díez jaunarekin. Elkarrizketa horretan, Ghiro jaunak 8an baskula zaharra desmuntatzen hasiko ziren langileek nora joan behar ziren eta norekin hitz egin behar zuten galdetu zuen, eta Díez jaunak jakinarazi zion kontratuaren arduraduna oporretan zegoela 9ra arte, eta irailaren 8an epeak luzatzeko eskaera egingo zela. Egun horretan bertan Elías Jadraque jaunak deitu zuen, azalduz atzerapenaren arrazoia burdinaren hornikuntzan gertatutako garestitzea dela, horren ondorioz fabrikatzaileak ezin izan duela baskula garaiz hornitu, eta haiek hori uztailearen amaieran jakin zutela eta ondoren guri esan zigutela. COVID-19ak sortutako egungo egoera, Suezeko arazoagatik, hainbat osagaien hornikuntza kaltetzen ari da, eta ez bakarrik ETEi, enpresa handiak ere kalte hori jasaten dira, ekoizpena gelditzera behartuta daude, eta administrazioaren aldetik aintzat hartzea eskatzen du. Ghiro jaunak jakinarazi du gogorarazi ziola epeak luzatzea eskatu zutenean, dagoeneko hornikuntza-epea iraungita zegoela, eta, ezjakintasunetik, ulertzen du baskula muntatu baino lehen hasi ahal ziren beste lan batzuk egongo zirela, ez direla egin, eta Administrazio honi lehenago jakinarazi beharko zitzaioela. Adierazi zaio arrazoi horiek zuzenean jakinarazi ahal dizkiola kontratazio-organoari, presidentearekin kontsultatu ondoren mezu elektronikoa bidali zaie, bilera hasteko aurreikusitako ordua adieraziz, eta gaia eztabaidatzen hasten denean gonbidapen elektronikoa bidaliko zaie. Hori 13:16an eta 13:18an egin da, hurrenez hurren.

Ondoren, Umerez jaunak bidalitako txostenaren laburpena egin du, batzarkideek eta Kuadrillako teknikariek planteatutako zalantzei erantzun die, adieraziz, besteak beste, enpresak kontratua iraungi baino lehen jakinarazi izango balu, beste neurri batzuk hartu ahalko lirakeela.

Deuseztapen honek Kuadrillari ekarri ahal dizkion kalteak azaldu dira, adibidez, Aldundiaren dirulaguntza galtzea. Eta Ghiro jaunak Elías Jadraque enpresak 13:30ean bidalitako mezua jakinarazi du, honela diona: *“Barkatu eragozpenak, baina gaurko 13:00etan oraindik ez dugunez Zoom bilerarako estekaren jakinarazpena jaso, Elías jauna joan behar izan da.*

Eskatu dit jakinaraztea hornikuntzan izandako atzerapenak gaur egun bizi dugun ohiz kanpoko egoeraren ondoriozko materialen eskasia dela. Egoera ulertzea eskatzen dizuegu, ez dagoelako gure esku. “

Behin informazio guztia emanda eta eztabaida eginda, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA Sucesores de Elías Jadraque SA enpresak aurkeztutako eskaera.

IKUSI DA enpresa horrekin sinatutako kontratua.

IKUSI DA Iparbilbao abokatu-langelako Esteban Umerez abokatu jaunak bidalitako txostena.



ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Sucesores de Elías Jadraque SA enpresak aurkeztutako eskaera ezezte. Eskaera ibilgailuak pisatzeko baskula elektronikoko finko bat hornitzeko, instalatzeko eta egiaztatzeko kontratuaren egikaritze-epea luzatzeko zen (728 2021/4/S02.01.03.02 espedientea).

BIGARRENA.- Kontratua suntsiarazteko espedientea hasia adostea, txosten juridikoaren D.4 atalean jasotako izapideen bidez. Espediente horrek honako helburu hau izango du, eta kontratistari entzunaldia egingo zaio, eta aurka egon ezean Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpidea eskatuko da: kasua denean, kontratua suntsiarazitza jotzea, kontratistari egotz dakioken arrazoiagatik; Aiarako Kuadrillari eragin ahal izan zaizkion kalte-galerak daudela eta horien zenbatekoa zehaztea, kasua denean; kontratistak ordaindutako bermea konfiskatzea agintzea eta, kasua denean, berme hori gainditzen duten kalte-galerak erreklamatzeko; eta egikaritzeko beharrezkoak diren ebazpenak hartzea.

HIRUGARRENA.- Ibilgailuak pisatzeko baskula elektronikoko finko bat hornitzeko, instalatzeko eta egiaztatzeko kontratu berriaren lizitazioari dagokion prozedura hasia adostea, nahiz eta horren esleipena aurreko kontratuaren suntsiarazte-espedientea bukatzearen menpe dagoen.

LAUGARRENA.- Kuadrillako presidentea gaitzea premiazko moduan kontratazio-prozedura berria hasteko behar beste izapide hasteko.

BOSGARRENA.- Sucesores de Elías Jadraque SA enpresari erabaki hau jakinaraztea.

Umerez jn. dagoenez, gai-zerrendaren bosgarren puntua aurreratu eta orain jorratuko da.

5.- CESPak BERANDUTZE-INTERESENGATIK JARRITAKO SALAKETAREN EPAIAREN KONTU EMATEA

Presidenteak CESPak aurkeztutako salaketaren epai ezulesa jakinarazi du (deialdiaren VIII. ERANSKINA). Umerez jaunak epai horri buruzko azalpen laburra eman du, adieraziz Cespak errekursoa aurkeztu dezakeela. Azaldu du epaiari jarraikiz, Cespak enpresak epaiketa-kostuak ordaindu beharko dituela.

3.- TURISMOKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA EMATEN ZUEN PERTSONAREN BORONDATEZKO BAJAREN KONTU



**EMATEA. ONESTEA, BIDEZKOA BADA, IPARNATUREK
PROPOSATUTAKO ORDEZKOA.**

Presidenteak jakinarazi du baja Iparnature SL enpresarekin kontratatutako Marta Barado Astobiza andrearen, turismoan Laguntza Teknikoko eta Kode Etikoko zerbitzua ematen zuenaren ondorioz izan dela. Enpresak abuztuaren 13an jakinarazi zuen.

Irailaren 8an Kuadrillaren erregistroan 585 sarrera-zenbakiarekin aurkeztutako eskaeraren arabera, aurretik aipatutako pertsona bi pertsonekin ordezteko eskatu da:

Miriam Gorritxategui
Ekaitz Montejo

Deialdiari curriculumak erantsi zaizkio **VI.** eta **VII.** ERANSKIN gisa.

Behin informazio guztia emanda eta eztabaida eginda, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA IPARNATURE SL ENPRESAK Marta Barado Astobizaren bajaren aurrean egindako eskarera.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Onestea Marta Barado Astobiza ordezteko enpresak proposatutako bi pertsonekin, Miren Gorritxategi eta Ekaitz Montejo.

**4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, TURISMOKO JARDUERAK
MARTXAN JARTZEA LAGUNTZEN ESKAEREN EBAZPENA BAINO
LEHENAGO.**

Ghiro jaunak jakinarazi du turismoko laguntzen eskaerak ebazteko zain daudela. Epean egutegia eta jarduerak egin ahal izateko, orain hasi beharko genituzke, egindako eskaeren ebazpenik gabe. Aurreko Batzordean esleipenak onetsi ziren, laguntzen eskaeren ebazpenak ematen ziren unerako prest izateko.

Behin informazio guztia emanda eta eztabaida eginda, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA sustapen turistikoko jarduerak hasteko beharra.



IKUSI DA ez dagoela jarduera horiek egiteko eskatutako laguntzen ebazpenik.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Bisita antzeztuak eta mirimaridajeen ekitaldia martxan jartzea onestea.

BIGARRENA.- Ebazpenak ez baditu aurreikusitako zenbatekoak finantzatzen edo eskaera ezezten badu, jardueren egikaritzea etetea edo egutegia finantzaketa errealerara moldatzea, Kuadrillak bere gain hartutako finantzaketa asko handitu ez dadin.

6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, LANPOSTUEN BALORAZIOA ESLEITZEA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA BERRIA EGITEA.

Ghiro jaunak jakinarazi du uztailaren 15ean aurrekontua eskatu zitzaizela honako enpresa hauei:

- Gestión Pública
- PKF ATESTT
- CRH Consultores
- Rodríguez Viñals
- EKAIN

Eskaintzak aurkezteko epea irailaren 3an amaitu zen. Lau enpresek aurrekontua aurkeztu dute, eta Ekainek parte ez hartzea nahiago izan du.

Honako hau izan da eskaintzen balorazioaren emaitza:

	MEMORIA	EPEA	EKONOMIK OA	GUZTIRA
RODRÍGUEZ VIÑALS	26	5	60,00	91,00
CRH	27	5	46,94	78,94
PKF ATTEST	33	5	56,73	94,73
CGP	30	5	59,19	94,19

Behin informazio guztia emanda eta eztabaida eginda, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA sustapen ekonomikoko teknikariak bidalitako txostena eta eskaintzak aurkeztu dituzten enpresek lortutako puntuazioa.

MEMORIA EPEA EKONOMIK GUZTIRA



			OA	
RODRÍGUEZ VIÑALS	26	5	60,00	91,00
CRH	27	5	46,94	78,94
PKF ATTEST	33	5	56,73	94,73
CGP	30	5	59,19	94,19

IKUSI DA 920 227074 partidan kreditu nahikoa dagoela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Lanpostuen balorazioa esleitzea eta lanpostuen zerrenda egitea onestea, **PFK ATTEST SERVICIOS PROFESIONALES SL** enpresak (IFK B95529343) aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorritz, **HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEI EUROKO** zenbatekozkoa (14.520,00 euro), **BEZa BARNE**.

7.- AFAREN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EMATEKO LAGUNTZEN EBAZPENAREN KONTU EMATEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, PRESTAKUNTZA IKASTAROAK ESLEITZEA.

Ghiro jaunak jakinarazi du uztailaren 22an AFak Aiarako Kuadrillak egindako prestakuntzarako laguntzaren aldeko ebazpena egin zuela.

Honako prestakuntza hauek onetsi dira:

EXCEL AURRERATUA: NEGOZIO INTELIGENTZIARAKO TRESNAK (EXCEL BI)	2.640,00 €
OKUPATU: PRESTATU ZAITEZ ENPLEGURAKO LINEAKO PARTAIDETZA-BILERAK	2.500,00 €
SALMENTA-PROZESUA ETA HORREN TEKNIKAK. TRESNA DIGITALAK TXERTATZEN	1.260,00 €
10.000 KG-RAINOKO MANUTENTZIORAKO ESKORGA JASOTZAILE FRONTAL ETA BILKORREKO OPERADOREA (UNE AENOR 58451 Arauaren arabera).	1.080,00 €
GARABI ZUBIKO OPERADOREA	3.850,00 €
ELZ AURREKO IKASTAROAK (ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA) ETA ELZ DIGITALIZATUA.	2.750,00 €
MERKATARITZA-KUDEAKETA ETA MARKETING-A GAIXOTASUN NEURODEGENERATIBOAK ETA/EDO DEMENTZIA (ALZHEIMERRA, ETAB.) DUTEN MENDEBASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA ESPEZIFIKOA.	5.500,00 €
MARKETING-A ETA SARE SOZIALAK PRODUKTUAREN ERAKUSLEHIO ETA SUSTAPEN GISA	1.100,00 €
SARE SOZIALETARAKO EDIZIO- ETA PROGRAMAZIO-	1.100,00 €



TRESNAK KUDEAKETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK: CONTAPLUS ETA NOMINAPLUS	5.500,00 €
	34.980,00 €

Diruz lagundutako prestakuntzak irakasten dituzten enpresen kontratazioa egin behar da.

Behin informazio guztia emanda eta eztabaida eginda, aho batez ERABAKI DA hartzea AKORDIO HAU:

IKUSI DA Arabako Foru Aldundiak bidalitako uztailaren 22ko ebazpenak, Aiarako Kuadrillan prestakuntza-ikastaroak irakasteko laguntzak emanez.

EXCEL AURRERATUA: NEGOZIO INTELIGENTZIARAKO TRESNAK (EXCEL BI)	2.640,00 €
OKUPATU: PRESTATU ZAITEZ ENPLEGURAKO	2.500,00 €
LINEAKO PARTAIDETZA-BILERAK	1.260,00 €
SALMENTA-PROZESUA ETA HORREN TEKNIKAK. TRESNA DIGITALAK TXERTATZEN	1.080,00 €
10.000 KG-RAINOKO MANUTENTZIORAKO ESKORGA JASOTZAILE FRONTAL ETA BILKORREKO OPERADOREA (UNE AENOR 58451 Arauaren arabera).	3.850,00 €
GARABI ZUBIKO OPERADOREA	2.750,00 €
ELZ AURREKO IKASTAROAK (ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA) ETA ELZ DIGITALIZATUA.	5.500,00 €
MERKATARITZA-KUDEAKETA ETA MARKETING-A GAIXOTASUN NEURODEGENERATIBOAK ETA/EDO DEMENTZIA (ALZHEIMERRA, ETAB.) DUTEN MENDEBASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA ESPEZIFIKOA.	5.500,00 €
MARKETING-A ETA SARE SOZIALAK PRODUKTUAREN ERAKUSLEHIO ETA SUSTAPEN GISA	1.100,00 €
SARE SOZIALETARAKO EDIZIO- ETA PROGRAMAZIO- TRESNAK	1.100,00 €
KUDEAKETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK: CONTAPLUS ETA NOMINAPLUS	5.500,00 €
	34.980,00 €



IKUSI DA beharrezkoa dela aurrekontu-partida sortzea emandako dirulaguntzaren gaikuntzarekin.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Hamabi prestakuntzak irakastea onestea, Udalek ikastaro horietako diruz ez lagundutako zatia finantzatzeko konpromisoarekin.

BIGARRENA.- Ondoren adierazitako prestakuntzak irakasteko esleipena onestea, **FONDO FORMACIÓN EUSKADI SLL** enpresari (IFK **B95237053**) aurkeztutako aurrekontuekin bat etorritik, **HOGETA BI MILA LAUREHUN EUROKO** zenbatekozkoa (22.400,00 euro), **BEZa BARNE**.

Prestakuntzak:

KUDEAKETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK: CONTAPLUS ETA
NOMINAPLUS
10.000 KG-RAINOKO MANUTENTZIORAKO ESKORGA JASOTZAILE FRONTAL
ETA BILKORREKO OPERADOREA (UNE AENOR 58451 Arauaren arabera).
GARABI ZUBIKO OPERADOREA
ELZ AURREKO IKASTAROA (ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA) ETA ELZ
DIGITALIZATUA.
GAIXOTASUN NEURODEGENERATIBOAK ETA/EDO DEMENTZIA
(ALZHEIMERRA, ETAB.) DUTEN MENDEASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO
ARRETA ESPEZIFIKOA.

HIRUGARRENA.- Ondoren adierazitako prestakuntzak irakasteko esleipena onestea, **MÓNICA BOZAS GUISADOr**i aurkeztutako aurrekontuekin bat etorritik, **BI MILA BERREHUN EUROKO** zenbatekozkoa (2.200,00 euro), **BEZa BARNE**.

MARKETING-A ETA SARE SOZIALAK PRODUKTUAREN ERAKUSLEHIO ETA
SUSTAPEN GISA
SARE SOZIALETARAKO EDIZIO- ETA PROGRAMAZIO-TRESNAK

LAUGARRENA.- SALMENTA-PROZESUAK ETA HORREN TEKNIKAK.
TRESNA DIGITALAK TXERTATZEN prestakuntza irakasteko esleipena onestea
GESTIONA XXI CONSULTING SLUri (IFK **B95172102**) aurkeztutako aurrekontuarekin
bat etorritik, **MILA ZORTZIEHUN EUROKO** zenbatekozkoa (1.080,00 euro), **BEZa
BARNE**.

BOSGARRENA.- **COACH&PLAY**ri (IFK **B95715678**) esleitzea Okupatu
programa egitea, aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorritik, 1.650,00 euroko zenbatekozkoa,
BEZa barne.



SEIGARRENA.- ADECCO FORMACIÓN enpresari (IFK **A58467341**) esleitzea Okupatu programaren barneko elkarrizketa-tailerrak egitea, aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorritz, 550,00 euroko zenbatekozkoa, BEZa barne.

ZAZPIGARRENA.- LINEAKO PARTAIDETZA-BILERAK prestakuntza irakasteko esleipena onestea **MIREN BEGOÑA LAUZIRIKARI** aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorritz, MILA BOSTEHUN ETA BERROGEI EUROKO zenbatekozkoa (1.540,00 euro), BEZa BARNE.

ZORTZIGARRENA.- MERKATARITZA-KUDEAKETA ETA MARKETING-A prestakuntza irakasteko esleipena onestea, **ARABAKO MERKATARITZA GANBERARI** aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorritz, BI MILA ETA BERREHUN EUROKO zenbatekozkoa (2.200,00 euro), BEZa BARNE.

BEDERATZIGARRENA.- EXCEL AURRERATUA: NEGOZIO INTELIGENTZIARAKO TRESNAK (EXCEL BI) prestakuntza irakasteko esleipena onestea, **AXIA INTELLIGENT LEARNING SLRI** (IFK **B95800348**) aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorritz, BI MILA LAUREHUN EUROKO zenbatekozkoa (2.400,00 euro), BEZa BARNE.

HAMARGARRENA.- EXCEL AURRERATUA: NEGOZIO INTELIGENTZIARAKO TRESNAK (EXCEL BI) prestakuntza irakasteko lokala alokatzeko esleipena onestea, **AMURRIO BIDEANI** aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorritz, BEDERATZIEHUN EUROKO zenbatekozkoa (900,00 euro), BEZa BARNE.

8.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, VITAL FUNDAZIOAREKIN EGINDAKO HITZARMENAREN BARNEKO FORMAKUNTZEN ESLEIPENA.

Behin informazio guztia emanda eta eztabaida eginda, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

AINTZAT HARTU DA Aiarako Kuadrillak urtero lankidetzat-hitzarmena sinatzen duela Vital Fundazioarekin.

AINTZAT HARTU DA Kreditu nahikoa dagoela 241 227 999 partidan.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Coach&Playri (IFK **B95715678**) esleitzea Okupatu programa egitea, aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorritz, 1.815,00 euroko zenbatekozkoa, BEZa barne.



BIGARRENA.- Adecco Formación enpresari (IFK A58467341) esleitzea Okupatu programaren barneko elkarrizketa-tailerrak egitea, aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorriz, 726,00 euroko zenbatekozkoa, BEZa barne.

9.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, KUADRILLAKO EGOITZAN ADSL-A ZUNTZAREKIN ORDEZTEA.

Ghiro jaunak jakinarazi du gaur egun Aiarako Kuadrillak Movistarreko ADSLarekin egiten duela lan, eta zuntzera aldatzeko aukera dagoela.

Behin informazio guztia emanda eta eztabaida eginda, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA 920 222010 partidan kreditu nahikoa dagoela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Aiarako Kuadrillak Movistarrekin duen kontratua aldatzea onestea, zuntz bidezko konexioa jartzeko.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:30** denean. Era berean, presidenteak eta neuk, aldi baterako idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

KUADRILLAKO PRESIDENTEA: ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.

KUADRILLAKO ALDI BATERAKO IDAZKARIA: GIANFRANCO GHIRO ALONSO

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**